

Numen "Ekaitzaren Deiadarra"

Visit "[Ekaitzaren Deiadarra](#)" on MotoLyrics.com

Urduritasun handiaren erdian,
Haizeak orro egiten duen bitartean,
Argizko geziek ekaitzaren etorrera iragartzen dute.

Milaka trumoik infernuaren ateak
Zabaltzen dituzte.
Haizeak itsasoa du astindu
Eta honen saminak altzatzen dituen olatuak
Itsasontziaren barrunbeak atsedean gabe
Madarikatzen ditu.

Laztura airean hedatzen da.
Iluntasun gorenak gure oroimenak
Izutzen ditu.

Jainkoek ezin dute ezer egin!

Itsasoaren gorrotoak banatzen gaitu.
Milaka irudik ene izatea
Oinazetu dute,
Ahanzturaren sakontasunean
Erortzen naiz.

Ene bizitza osoa
Nire begietan isladatzen da,
Badaki azkena dela!

Itsasoak bizitza seneratu du
Borroka hau amaituz,
Marinel baten bihotza irentsiz.

Hau da Jainko Urdin gorenaren jokaera!
Menderatze bakoitzeko
Erauzt

En du bizitza bat.

Visit [Numen](#) page on MotoLyrics.com, to get more lyrics and videos.